

UDALBATZA BERRIA ERATZEKO PLENO BEREZIA

2015.06.13

Tolosako Udaletxean, 2015eko ekainaren 13an, eguadiako hamabitan, kargua utzi behar duen Alkate-lehendakariak deituta, maiatzaren hogeitabostean hauteskundeetan hautatuak izan ziren zinegotziak lehen deialdian elkartu dira Pleno Berezia eginez Udalbatza berria eratu eta Alkatea aukeratzeko.

En la Casa Consistorial de Tolosa a las doce del día 13 de junio de 2015, se reúnen convocados por el Alcalde-Presidente saliente, en sesión extraordinaria y en primera convocatoria, los concejales electos que se expresan, que han resultado proclamados en las elecciones municipales celebradas el pasado 25 de mayo, al objeto de proceder a la constitución de la nueva Corporación, así como a la elección del Alcalde.

Bertaratutako zinegotziak:

Olatz Peon Ormazabal
Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Patxi Amantegui Zubiria
Nuria Carbonell Miranda
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente
Lore Agirre Zipitria
Onintza Lasa Arteaga
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Igor Ezenarro Balda
Maria Lasa Arruabarrena
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Jose Ignacio Asensio Bazterra

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

1.- Adineko Mahaia osatzea.

1.- Constitución de la Mesa de edad

2.- Hautetsien kredentzialak eta nortasuna egiaztatzea.

2.- Comprobación de credenciales y personalidad de los electos

3.- Zinegotzien kargua hartzea.

3.- Toma de posesión de los concejales.

4.- Udalbatzaren eratze-deklarazioa

4.- Declaración de constitución de la Corporación.

5.- Alkatea hautatzea.

5.- Elección de Alcalde.

6.- Alkatearen kargua hartzea.

6.- Toma de posesión del Alcalde.

1.- Adineko Mahaia osatzea:

Lehenik, Idazkariak Hauteskundeetan zinegotzi hautatuak izan direnei deitzen die eserlekuetan jartzeko.

Jarraian, bilkuraren helburuak Udalbatza berriaren eraketa eta Alkatea hautatzea direla adierazi zaie etorritakoei, guztia Hauteskunde Orokorren Lege Organikoko 195-2, Korporazio Lokalen, Antolamendu eta Funtzionamendu Arautegiko 37.2 eta lehen aipatutako Lege Organikoaren 195 artikuluek diotena betez.

Bilkurari hasiera emanda, Adin Mahaia osatu da: Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez, 57 urterekin, zaharrena, mahaiburu eta Maria Lasa Arruabarrena, 24 urterekin, gazteena. Idazkari, bilkurako berak, Jose Luis Unanue Ugaldek (idazkariak) ihardun du.

2.- Hautetsien kredentzialak eta nortasuna egiaztatzea:

Segidan, Mahaiburuak Zinegotzi berrien kredentzial edo nortasun agiriak egiaztatu ditu, Tolosako Hauteskunde Juntak bidalitako egiaztapenarekin alderatuz.

3.- Zinegotzien kargua hartzea.

Idazkariak zinpeko aitorenari ekiten dio eta aurkeztu diren zinegotzi guztiek, banan bana, dagokion erantzuna eman dute. Ondoren, Legeak agintzen dituen baldintza guztiak beterik, zinegotzi hautatuei karguaren jabetza eman die Adin Mahaiaiko Lehendakariak.

4.- Udalbatzaren eratze-deklarazioa

Aurreko guztia egin eta gero, Adin Mahaiaiko Lehendakariak ere Udalbatza eratutzat jo du, honoko hauek osatzen dutelarik:

Olaz Peon Ormazabal	EAJ-PNV
Jokin Azkue Arrastoa	EAJ-PNV
Nerea Letamendia Belloso	EAJ-PNV
Patxi Amantegi Zubiria	EAJ-PNV
Nuria Carbonell Miranda	EAJ-PNV
Iñigo Alonso Sarasibar	EAJ-PNV
Joseba Koldo Ormazabal Lopez	EAJ-PNV
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga	EAJ-PNV
Begoña Tolosa Mendia	EAJ-PNV
Ibai Iriarte San Vicente	EBBILDU
Lore Agirre Zipitria	EBBILDU
Onintza Lasa Arteaga	EBBILDU
Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez	EBBILDU
Igor Ezenarro Balda	EBBILDU
Maria Lasa Arruabarrena	EBBILDU
Peio Etxabe Zabala	EBBILDU
Jose Ignacio Asensio Bazterra	PSE-EE

5.- Alkatea hautatzea.

Hauteskunde Erregimen Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 196 artikulua xedatzen duenaren arabera, Udalbatza eratzten den bilkura berean Alkatea hautatu behar da. Halaxe adierazi zaie etorritakoei.

Hurrengo zinegotzi zerrenda-buruek alkategai izango dira, PSE-EEren zerrendaburuak uko ekin batio alkategai izateari.

- Olatz Peon Ormazabal, EAJ-PNVren zerrendaburua.
- Ibai Iriarte San Vicente, EHBILDUren zerrendaburua.

Idazkariak banan bana deitzen die zinegotziei hauek bozkatu dezaten.

Zinegotzi guztiek ahoz bozkatu ondoren, botoen zenbaketa egin da eta emaitza honako hau izan da:

- Olatz Peon Ormazabal, 9 boto
- Ibai Iriarte San Vicente, 7 boto.
- Jose Ignacio Asensio Bazterra, abstentzioa.

Beraz, Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV-ko ordezkaria, alkategaien artean gehiengo absolutua lortu duenez, aldarrikatu da alkate.

6.- Alkatearen kargua hartzea.

Hori guztia burutu eta legezko formalitateak, zina barne, bete ondoren, Udal Plenoak Alkate kargua eman dio Olatz Peon Ormazabal andereari, indarrean dauden xedapenek hari ematen dizkioten ahalmen, eskubide eta betebeharrekin.

Jarraian, Ibai Iriarte San Vicente alkate ohiak Olatz Peoni, aginte makila emanez, hitz hauek esaten ditu:

“Gaur, Olatz, niri dagokit duela lau urte nik jaso nuen makila hau zuri eskaintzea. Herri luze honen edo herri honen historia luzean kate begiak besterik ez gera. Eta zentzu horretan, gaur niri dagokit zuri makila ematea. Hala ere, eskerrak eman nahiko nizkieke lau urte hauetan, ohore bat izan delako, ohore bat niretzako Tolosarentzako lana egitea, Tolosarengatik lan egitea.

Ohore bat, bidean bidelagun izan zareten guztiei eta guzti horiek ezagutzea, guzti horiekin lan egitea, gertu sentitzea.

Ohore bat zinegotzi taldea eta udal gobernua, ohore bat zuekin lan egitea eta zuekin esperientzi guzti hauek bizitzea. Ohore bat, azken finean, nire bizitzaren esparruan lau urte hauek niri sakon sakonetik eragin didatelako. Konpromiso bat Udal gobernu izan garenak oposiziora pasatzen garelako. Herri hau, Tolosa eta Euskal Herria maite dugulako, behetik gora eraiki beharreko herrian sinisten dugulako; zentzu horretan konpromisoa berresten dugu, Tolosa, Euskal Herria eta herri honen alde. Zentzu horretan, eta amaitzeko, gomendio txiki bat besterik ez: egin lan Tolosarengatik, Tolosarengatik eta, batez ere, Tolosarrekin; Zorionak”.

Jarraian Alkateak, parte hartu du honako hauek adierazteko:

Ibai San Vicente, alkate ohia zuzenduta: *“Biziki eskertzen dizkizut zure hitzak eta kontutan hartuko ditut gainera eta elkarlanean arituko garenen itxaropenarekin hasiko dugu ibilbide hau”*.

Jarraian, udalbatzaren osaketara bertaratu diren herritar guztiei eskerrak eman ondoren, Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSE-EE alderdiko zinegotziari eman dio hitza:

Jose Ignacio Asensio Basterra:

“Lehenik eta behin, zorionak Olatz Tolosarrak argi utzi digute ez dutela nahi beste 4 urte galduak izatea eta nabarmenki adierazi dute aldaketa nahi dutela beraien botoen bidez.

Por nuestra parte trabajaremos para la mayoría de los ciudadanos y por sus problemas reales. En este sentido, tendrás nuestra colaboración Buena suerte; Sorte on!

Ondoren, berriro alkateak, Olatz Peon Ormazabalek, hitza hartu du:

“Mila esker zuri ere, Jose Ignacio . Lehenik eta behin, aitortu behar dizuet inoiz, edo errez, ez dudala egun hau nire bizitza guztian ahaztuko arrazoi nagusi batengatik, Udal administrazio eta Euskal administrazio guztiari sekulako begirunea diodalako eta, bereziki, Tolosako udalari, azken finean, herriaren borondatea isladatzen duelako. Astelehenetik aurrera, Udalbatzak, orain osatu berri den honek, ibilbidea hasiko du; gobernu taldeak kudeaketa lanak egingo ditu, gardentasunez eta eraginkortasunez, eta oposizio taldeak gobernu taldea horren fiskalizazio lanak egingo ditu eta horretarako behar dituen baliabide guztiak eskura izango ditu.

Nire lagun on batek dioen bezala, bidea nola egin jakiteko komeni izatea bidea nola egin aurrez ondo pentsatzea; herria maitatu egin behar da, herria maitatzeko gertutik ezagutu behar da eta ezagutze hori biziki errespetatu. Hori guztia oinarri sendo batekin eta oinarri izango da, baina etikoki, eta gizabali guztiak kontutan izango ditu udalbatza honek hartuko dituen erabaki guztietan.

Agradecer públicamente a todas las personas de Tolosa que durante año y medio han accedido a reunirse con nosotros y hacer el ejercicio de proyectar el Tolosa del futuro, personas de diferentes pensamiento y ámbitos, pero que tenían un denominador en común, una pasión por Tolosa y poner su trabajo personal a servicio del bien común. Reconocimiento a todas las personas dispuestas a visualizar una mejor gestión del Ayuntamiento con la mirada puesta en la ciudadanía a la que sirve.

Eskertu baita gaur kargu hartu duten 17 zinegotziei; astelehenetik aurrera egingo duzuen lan guzti horrengatik; aurretik egondako ordezkari guztiei eskertu egindako lana eta babesa. Bereziki aipamen berezia Mirentxu Etxeberriari. Meritua handiena ez da Tolosako lehen alkate emakumea izatea, baizik garai zailetan politiko eta sozialki herri honen gidaritza oso egokia eman izana; emakume izaerak ez zion erraztuko eta horrengatik aipamen berezia hari nahi nuen egin.

Por ultimo, agradecer el apoyo de mi familia, aqui presente. Politikagintzan eta udal administrazioan lanean egitea eremu pribatuan ere eragina izaten du. Askotan, zama gerta daitekeen hori ere, naturaltasunez eta normaltasunez hartzea, eskertu nahi nieke nire etxekoei. Abestian dioen bezala, lehenengo, aitari, amari, anai arrebari, eta etxekoei. Hori da bereziki esan nahi nizuena.

Hemendik aurrera, San Joan jaiak atarian ditugu, gure gozamenerako. Astelehenetik aurrera udaletxeko ateak beti bezalaka irekiak izango dira, lanean zintzo eta leial aritzeko. Bitarte horretan eskerrak bertaratu zareten guztioi, eta pasa dezazuela egun zoragarri bat!”

Besterik gabe, eguerdiko hamabiak eta erdietan, Alkateak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkaria naizen aldetik, guzti hori ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, el Alcalde da por finalizada la sesión, a las doce y media, de lo que yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA